



# Arriskuen komunikazioari buruzko txostena - EUFIC 2004

Elikadura Informazioari buruzko Europako Batzordeak (EUFIC) joan den ekainaren 1 eta 2ko tailerrako txosten bat argitaratu du. Egun haietan, elikadura arriskuak komunikatzeko prozeduraz eztabaidatu zuten. Adituen iritziz, komunikazio orok arrakasta izateko giltzak honako hauek dira: gizarteak konfiantza izatea arau emaileengan, arriskuak jakinarazteko orduan garden jokatzeta eta erabaki politikoetan parte hartze publikoa izatea. Horren ondorioz, aholku batzuk definitu zituzten: arriskuak sailkatzeko sistema baten beharra, ikertzaileei arau emaileekin elkarlanean aritzeko aukera ematea, politikariek komunikazio estrategiak prestatzeko premia, politikariek erraztasunak ematea herritarrek zientzialarien terminologia ezagutu dezaten, gizarteak berriak antzemateko dituen kultur ezberdintasunak definitzea eta ezberdintasun horiek azaltzeko tresnak sortzea, eta azkenik, Erkidego mailan zientzialari talde bat eratzeko beharra, Elikadura Arriskuen Komunikazioa gauzatu dezan.

Artikulu osoa ([https://seguridadalimentaria.elika.eus/wp-content/uploads/articulos/Archivo\\_EU113/EUFIC\\_Comunicacion\\_Riesgo.pdf](https://seguridadalimentaria.elika.eus/wp-content/uploads/articulos/Archivo_EU113/EUFIC_Comunicacion_Riesgo.pdf))  
ELIKA - Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . [berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus)  
(<mailto:berri@elika.eus>)